



ODOLA

Uxue Iturbide Ipiña

Busturia

Autoaren atzeko kristala odolez bete zen momentu batetik bestera. Hura ikusteak izugarri lasaitzen ninduen, a zein baregarria odol freskoaren lurrun epela...

Ez nuen nahita egin, baina lehenago edo beranduago gertatu behar zuenez ez nintzen gehiegi kezkatu. Nire momentuko ardura bakarra polizia patruila autoren batekin gurutzatu eta zerbait susmagarria nabaritu ondoren ni geldiaraztea zen, beraz argi zegoen ahalik eta lasterren autoaz eta barrukoaz libratu behar nuela.

Pistola atean ezkutatu eta kanpora begiratu nuen, norbaitek zerbait ikusi edo entzun zuen beldurrez. Zorionez, bazirudien bakarrik nengoela. Innsbrucken kanpoaldean ez zen etxerik, autopista zen iluntasunean distiratzen zuen korridorea, eta ibilgailuak honetan zehar mugitzen ziren, neguaren ikaraz azken orduan janaria biltzen zuten inurriak bailiran. Astearte iluntze bateko hamabiak laurden gutxiago ziren, eta ni bakarrik nintzen Austriako herri txiki hartatik Veronako Malcesi-



nera zihoan bidean. Inguru hartan beste inori ez zioten enpresari ospetsu bat erailtzeko eta bere gorpua desagerrarazteko enkargatu, antza.

Ibilbideak aurreikusi bezala hiru ordu eta erdi inguru iraunez gero, goizaldeko laurak inguru izango ziren gizona Malcesinen utzi eta diruarekin Bernarako bideari, etxerako bideari ekin orduko.

Irratia itzali nuen, sorgor. Musika horrek ez zidan ezer esaten, transmititzen; inoiz ez dut ulertu kontzertuetan ondo pasatzen duen jendea. Zarata, masak, gezurrak eta gezurrak mikrofonoetan eta gure belarrietan barrena. Zenbat bider abestu ostean hartzen du abesti batek benetako esanahia? Eta zenbatekin galdu?

Horrek guztiak ez du baliorik taxi faltsu batean norbait hiltzea posible den mundu batean. Ez, guxtienez, hildakoaren bilaketan emango den denbora eta kemena bizitzarekin batera utzi duen diru kantitatearen araberakoa den bitartean.

Mapa bolantearen eta nire artean ipini eta atzarrarekin Malcesineraino eramango ninduen errepidea bilatu nuen. Marra berde isil hori E45a zen, buelta emanez gero Suedia iparraldeko puntaraino eramango ninduen autopista. “Ez da ideia txarra” pentsatu nuen, “hurrengorako badut ezkutalekua”.

Konturatu orduko heldu nintzen Malcesinera, eta espero bezala, ez zen inor kale beltzetan. Katu gris batek harresi batetik begiratzen ninduen, zer gertatzen ari zen baleki bezala. Katuaren begirada nahi bezain hotza izango zen, baina nigan ez zuen



eraginik. Ez, honezkero. Portua zirudienara jaitsi nintzen, eta etxerik ez dendarik ez zen bazter batean itzal bat ikusi nuen, auto baten parean zutik. Beste inor ezin izan zitekeenez, berarengana hurre-ratu nintzen, eta ikusi ninduenean, jarri zuen aurpegiatik igarri nuen lasaitu itzela hartu zuela, bera hori ezkutatzen saiatu arren.

Autotik jaitsi nintzen eta berak atzeko kristalari begiratu zion.

–Zera... mehatxatu egin nau eta auto barruan tiro eman diot... e ... oraintxe gar...

–Ez –moztu ninduen–, zure gauzak atera eta giza-joarekin batera botako dugu uretara. Ez dago txerri-keria hau garbi dezakeenik –esan zuen, burua autotik atera eta bere autora hurbildu baino lehen–. Batu barruko guztia, autoa aurkituz gero poliziak zu identifikatzeko erabili dezakeen dena. Ez dut uste arazorik izango dugunik, baina badaezpada.

Barrura begiratu nuen. Atean ezkutatuta utzi nuen pistola hartu, besaulkiaren aurka apur bat garbitu eta gerrikoan sartu nuen, maparekin batera. Giltzak barruan utzi nituen, ez zitzaidan kome-ni inork haiekin aurkitzea, eta aulki azpian nera-man trucker jaka hartu nuen, zeina, harrigarriro, kutsugabe zegoen.

Azken begiratu bat eman, atea itxi eta Clifford jaunari hurbildu nintzaion. Bera, aldiz, gurgildun hiltegi inprobisatuan sartu eta lauzpabost metro altuago zegoen itsaslabarreraino gidatu zuen. Autotik jaitsi eta laguntzera hurbiltzeko keinu bat egin zidan, bion artean enpresaria atera eta amil-

degitik itsasora bota genezan. Hala egin ere. Soka batekin harri batzuk lotu genizkion eta guztiz hondoratu eta ikusezin egin zela egiaztatu genuenean, autoari bultzada bat eman eta uretara bota genuen, korronteak indar handiz sakonera handiagoko aldera eraman eta itsasoan barrena desagerarazi zuen arte.

Apur batean itsasoari begira gelditu ginen biok. Nigatik izan balitz momentu hartan bertan alde egingo nukeen; gaua zen, itsasoa hilik zegoen. Ez dakit zer itxaropen edo lasaitasun mota eman ziezaiokeen horrek munduari, jakinik bertan zeudela azken hiru urteetan guk geuk gure eskuekin hildako laurogei bat pertsonaren hondakinak.

–Matt –esan zidan denbora tarte luzeegi baten ostean- orain Bernara zoaz, ezta? Eraman ezazu nire autoa, diruz betetako maleta kopilotuaren aulkiaren azpian dago. Ni hemen ondoan bizi naiz, badut beste auto bat.

–Ondo da, itzuliko dizut beste bat erosten dudanean.

–Ez, ez. Hartu zuretzako, lanerako ere bat behariko duzu, ezta?– begirada lurrera eraman eta gorputza nigana biratu zuen- izan ere, beste enkargu bat dut zuretzat.

Eskua poltsikora eraman eta tolestutako paper zati bat eman zidan. Hartu eta irakurtzeari ekin nion, beti egiten dudan legez. Oraindik goizaldeko laurak ziren eta argirik ez zegoenez, zaila egiten zitzaidan ezer irakurtzea.

–Newton. Charles Newton. 36 urte. Interlakenen bizi da hiru alaba, emazte eta txakurrarekin, Bernatik 45km ingurura, leiho urdindun etxe zurian. Polizia da. Nazkantea gure atzetik ibili omen da arestian etengabe desagertzen ari diren narko kopuruak aztoraturik, eta zerbait daki gure taldekide Ashtonek pasa den hilabetean Harz basoan akabatu zuenaz. Noski, ezer salatu baino lehen proba bila dabil.

–Ongi da, igande iluntzerako mapatik kanpo, Jauna. Zer egingo dut berarekin, nora eramango dut?

–Bere autoko maletategian utzi. Ez polizia autoan, norbere autoan baizik. BMW M3 E30 beltz bat, etxe aurrean aparkatzen du. Aste honetan arratsaldeko txandan dihardu lanean, etxera gauerdia pasatxo aldera heltzen da, gainerakoak lo daudenean. Behin barruan, herriko plazan norbait izango da zure zain, giltzak hartu eta autoarekin hanka egingo du.– Une honetan bere autora hurbildu, atea zabaldu eta giltzak luzatu zizkidan.

–Zure aginduetara beti. Mila esker autoa uzteagatik.– Autora sartu, motorra abiarazi, eta astiro-astiro buelta ematen hasi nintzen, berriz ere E45era gidatuko ninduen kantoira heltzeko asmoz. Atzerako ispilura begiratu eta hor ikusi nuen barretxo batekin besoaz agur egiten. Eskuaz agurtu nuen, baina nik ez nion irri egin. Nik ez dut horrelakorik inoiz egiten.

Bernarako bidea luzeagoa zen, heldu orduko goiza izango zen eta kaleak jendez josita egongo

ziren. Hala ere, ez nuen beste aukerarik, Italiako herri hartan gelditu nahi ez banuen.

Kontu handiz ibili beharko nuen heltzean, praktetan eta kamisetan odola nuen-eta. Hau besteengatik egiten nuen, nire lankideengatik batez ere; niri oso gutxi axola zitzaidan kaletik horrela ibiltzea.

Beti izan dut harreman aski bitxia odolarekin. Txikitan medikua izan nahi nuen, jendeari sabela zabaldu eta euren barruak ikusteko, usaintzeko, ukitzeko. Eskerrak ez zitzaidan nota heldu, batek daki non izango nintzen orain. Itsasertzeko txalet batean bi ume iskanbilatsu eta maite ez dudan emazte erizain batekin, ostegunero leihoak garbitzen dituen garbitzaile batekin eta umeak eskolatik ekartzen dituen beste zaintzaile batekin? Ez, eskerrik asko. Nik ez dut arauk diotena jarraitu nahi, ez naiz izango eurek nahi duten bezalakoa. Nirearekin zoriontsu baino gehiago naiz!

Giltzak ateko sarrailan sartu eta eskuineko hanka etxean sartu bezain pronto nire burua besaulkira bota nuen. Egunez zen, baina laino beltz eta astun batzuek ez zioten Bernari arnas hartzen uzten. Egun bat baino gehiago neraman lo egin gabe, eta oso nekatuta egon ez arren deskantsatu egin behar nuen asteburuan indarrez eta energiak gainezka egoteko. Plangintza ere egin behar nuen, pertsona bat ez baita kasualitatez kalean harrapatu, hil eta auto baten ezkututzen. Bizitza hain erraza balitz...!

Loalditik esnatu nintzenean maleta hartu eta barruko dirua kontatzen hasi nintzen. Ehun mila,

berrehun mila, hirurehun... bostehun mila franko. Ez zen diru gutxi. Post-it bat ere bazegoen. “Ez utzi ez arrastorik ez lekukorik”, betiko lema, eta “behar izanez gero autoko ate bakoitzean pistola bana dago” azpian. Ondo zegoen jakitea.

Telebista piztu nuen. Eguerdiko albistegiak telefonia enpresa bateko buruzagiaren desagerpena salatzen zuen, senitartekoen negar eta itxaropen mezuek lagundurik. Hasperen egin nuen. “Ez al gara inoiz aspertuko betiko kontuaz?” itaundu nion neure buruari, “negar-intziriak alferrikakoak dira jada joan denean, zabal itzazue begiak behingoz”.

Gizartearekiko esperantza aspaldi galduta, hasperen egin nuen. Gauzak ez zihozen hobera. Besaulkitik altxatu, egongelako tiradera bat zabaldu eta Suitzako mapa atera nuen, Interlakenera egin beharko nuen bidaia prestatzeko. Errepide nazionala hartuz gero herriko plazara helduko nintzateke, beraz erraza izango zatekeen autoa nonbait utzi, egin beharrekoa egin eta Charles delakoaren autoaren bila etorriko zenari ematea, bizkor-bizkor nire autora itzuli eta etxera bueltan etortzeko. Hala ere, komenigarria litzateke apur bat lehenago joatea eta bere etxetik plazarako bidea zein den ikustea.

Jada berandu zenez, hurrengo egunerako atzeratu nuen egitasmoa, denbora gehiagorekin eta behar bezala egin ahal izateko. Ostegun gauetan ez da pertsona arruntik ibiltzen kalean zehar, are gutxiago Suitzan, neguan. “Bai” erantzun zidan nire barruko ahotsak, “enkarguz eta afizioz gainerakoak

hiltzeaz arduratzen diren nazkagarriak bai”. Kasurik ez egiten saiatu nintzen.

Arratsaldean ez nuen ezer handirik egin. Newton jaunaren bizitza nirearekin konparatzen ibili nintzen, eta goiz sartu nintzen ohera, emoziorik gabeko bizitzak gogaiturik. Charles horrek jakingo al zuen benetan bizitzea zer den? Zenbat bider erreprimitu behar izango zuen bere buruak agintzen ziona, berak benetan egin nahi zuena, munduak gizakume arrunt eta eredugarritzat jo zezan? “Hire bizitza duk, motel, bizi ezak hik nahi bezala, iratzargailuaren goizeroko txirrinak konsumi ez hazan...!”

Nik ez nion ezeri beldurrik, emoziorik gabeko otsoa ez du ezerk kikiltzen: ardiek ikusi gabe bere bizimodua ahal duen moduan ateratzeaz arduratzen da. Baina bazen nire logelako pareta ixilengain noizean behin ni aztoratzea lortzen zuen zer-bait. Batzuetan bazirudien hormek nire partez pentsatzen zutela, eta amesten nuen guztia ikusi eta grabatzeko gai zirela. Pentsamendu horrek ez ninduen neurritz gain torturatzen, baina arrotza egiten zitzaidan nik kontrola ezin nezakeen nire zati bat objektu mando eta bizigabe batek eskutik zeukala imajinatzea, eguneroko egoeretan nire burua menderatzeko zeinen ezgai nintzen aintzat hartuta.

Eguerdian esnatu nintzen, pertsianako zirrikituetatik sartzen ziren argi-izpien erruz. Ohetik altxatu eta dutxa hotz bat hartu ostean, gaeuz beharko nuen guztia prestatzeari ekin nion.



Motxilan auto berriko eta etxeko giltzak, Suitzako mapa eta Astra A-80a, nire betidaniko pistola gus-tukoena, sartu nituen. Diru-zorroa hartu eta nire dokumentazioa atera nuen; zer gertatuko ere, ezin nintzen arriskatu. Momentu horretan Walter Lewis bihurtu nintzen, Zuricheko fruta saltzailea.

Entsalada bat bazkaldu ostean, eguzkitako Ray-Ban Wayfarer-ak jantzi eta garajerako bidea hartu nuen. Heltzean, jakin-minez, ateetan pistolak zeudela egiaztatu nuen, eta une batez gelditu egin nintzen. “Hau kakaztuz gero pikutara nagusiak nigan duen uste osoa. Kontu handiz, Matt, kontu handiz!”

Sakon arnastu eta burua altu mantenduz, atea zabaldu eta autoa martxan jarri nuen. Inork ikusi gabe irteten saiatu nintzen eta autopistara irten orduko egingo nuena planifikatzen hasi nintzen. Lehenik eta behin, plazatik biktimaren etxeraino-ko bidea arakatu eta autoa non aparkatuta dagoen begiratu. Ahal izanez gero, lanerako bidea hartzen zuenean bere etxetik hurbil egon ezkutatuta, identifikatu ahal izateko eta goizaldean lanetik itzultze-an eraso egin ahal izateko.

Bidea seinaleei bakarrik kasu eginez egiteko gauza izan nintzen, eta nahiko goiz heldu nintzen Interlakeneko plazara. Mendiek eta urak inguraturiko herririka zen, familia tioldar baten teleailetik ateratakoa zirudiena; etxe txiki eta zuriak, koloretako hostoz apaindutako zuhaitzak eta jada toki gutxitan aurki daitekeen isiltasuna. Praketako patrikatik Clifford jaunak eman zidan papera atera eta



leiho urdindun etxe zuriaren bilaketari ekin nion. Eliza paretik pasatu eta dendatxo betetako kale baten barrena sartu nintzen, eta zubi bat igaro ondoren, egoitza aldera heldu nintzen. Iluntzeko zortziak ziren, Newton etxetik irteteko ezin zen askorik falta. Bi aldeetan etxe lerro bana zuen etorbidean barneratu nintzen, eta eskuinaldeko hirugarren etxebizitzaren aurrean gelditu nintzen, pentsakor. Horixe zen.

Ondo baino hobeto aztertu nuen. Sarrera eskuinaldean zegoen, autoa aparkatzen zuten alde berean, eta leihoek etorbidera eta beste aldera ematen zuten. Espero baino hobeto zihoan dena, sinestezina zen.

Gizonari itxaroten nion bitartean ingurua arakatu nuen. Egin nuena baino bide hagitz hobea ere bazen etxearen ezker aldeko bidea jarraituz, plaza minutu erdi inguruan eramango ninduen.

Halako batean motor bat nigana hurreratzen entzun nuen, bera zen. Ni baino pare bat metro aurrerago zegoen bikote batengana hurbildu nintzen, albotik pasatzean nigan hainbeste fijatu ez zedin eta gauean berriz elkartzean identifika ez nintzan. Pasatu zenean disimuluz begiratu nion. Ezin izan nuen oso ondo bereizi, baina nagusiak esan bezala BMW beltz bat zen, eta berak 40 urte inguru, ile laburra eta betaurrekoak zituen.

Goizaldeko hamabiak arte ez nuen zer eginik, eta nonbait egon beharko nuen. Herriko jatetxearen batera afaltzera joatea erabaki nuen, eta gero pasiera bat eman nezakeen, tapaukaren eta bero-kiaren atzean ostendurik.

Errepidearen ondoko kalera ematen zuen jatetxe batean sartu eta, kanpotik nentorren aitzakiaz, leiho ondoko mahai batean jar nintzatela eskatu nuen, Suitzako egundoko parajeez gozatu ahal izateko. Baita lortu ere. “Beste behin ere, gezurrak esanez irten da gaizkilea garaile”. “Rösti” eta “raclette” plater bana eskatu nuen afaltzeko. Atera bitartean, ingurua aztertu nuen: nire ondoko mahaian zegoen bikote nagusia trajez jantzita zihoan eta frantsesez ari ziren euren artean; bi mahai aurrerago zegoen familiarako umeez, aldiz, leihotik begira zeramatzen denbora mordo bat. Ez zuen ematen zerbitzariak oso pozik zeudenik, leku nazkagarri hartatik ihes egiteko aukera izanez gero birritan pentsatu gabe baietz esango zutela pentsatzen nuen nik.

Eta ziur oker ez nengoela.

Zerbitzariak platerak atera zizkidaten, bata bestearen atzetik, baina denbora sobera nuenez denbora egiten ahalegintzen nintzen. Bi platerak eta kafea hartu nituenerako eta jatetxeko atean jaka berriz goraino lotu nuenerako hamaikak ziren. Ez zen inor kalean eta hotz handia egiten zuen, negua jada ate-joka ari baitzen; eta nik oraindik ordubete nuen zerbait, edozer egiteko.

Egiteko beste ezer gabe eta inork ni kalean ikusi eta susmagarritzat hartzeko gogorik gabe, nire autora sartu nintzen, gutxienez hotzarengandik babestuta egoteko. Itxaron, eta itxaron, eta itxaron ostean... hamabiak bost gutxi ziren, eta Charlesen autoa heltzen ez zela ikusirik, aurreratu eta etxeko atarian itxarotea erabaki nuen. Nire pistola kuttu-

na soinean neraman jada, baina badaezpada atean ezkutatuta zegoena ere hartu eta gerrikoaren beste aldean sartu nuen.

Bertara bidean, hotza zen babesturik sentiarazten ninduen, ingurunearen eta nire barneko iskanbilaren artean nolabaiteko muga ezartzen zuen elementua. Denboran atzera begiratu nuen. Anabasa honetan sartu nintzenez gauza asko laga behar izan nituen, familia besteak beste. Baina gustuko nuen, diru mordoa irabazten nuen txikitatik amestu nuen lana egitearren, eta gainera hau ezin zuen edonork egin. Ez zuen balio bihotza izateak, nahitaezkoa zen burua galdu eta ondo pasatu nahi izatea!

Hamabiak eta bost. Newton familiaren etxea –orain arte, behintzat– kanpoko zoritxarrendik babesten zuen harresiaren aurka nengoen, leihoek eta aparkalekuak ematen ez zuten aldean. Larregi itxaron baino lehen entzun ziren gurpilak kaleko bihurgunea hartzen, eta segundu gutxira heldu ziren fokuen argi-izpiak lorategira. Bi pistolak kargaturik zeudela egiaztatu nuen, azken aldiz, eta autoa harresiaren barrualdera pasatu zenean, atzeldetik jarraitu nion, argiak ematen ez zidan eta itzalik sortzen ez nuen aldean. Atea zabaldu eta irten zenean, mugimendu arin baten bidez bere eskuak hartu nituen esku batekin, eta bestearekin ahoa estali nion, zaratarik egin ez zezala aditzera emanaz.

Atzeko poltsikoan zeramatzan eskuburdinak hartu eta bere eskuak lotzeko erabili ostean, agindu zidaten bezala, maletategian sarrarazi nuen eta, ni, gidariaren lekuan jarri nintzen. Herriko sarre-

rara gidatu eta etxe eta jenderik gabeko bazter batean gelditu nuen autoa, inork entzun ezin nintzan. Motorra martxan utzi nuen, gutxienez pixka bat disimulatzeko, eta pistolari bi eskuekin tinko heldurik, maletategira apuntatu nuen. Atetzarra zabaldu baino lehen hiruraino kontatu nuen.

Bat..

Bi...

Hiru.

Eta bat-batean, nire aurrean zen belauniko, beste pistola batekin niri apuntatzen zidalarik.

–Kaixo, Matt –esan zuen, erronkari– oroitzen ahal zara nitaz?

Ez nekien zer esan. Noski gogoratzen nintzela.

–Lucas naiz, baina zuk, amatxok eta aitatxok Luke deitzen zenidaten... jaits ezazu arma behin-go, ez dizut ezer egingo- eta pistola askatu zuen, eskuak airean altxatuz.

Kasu egin nion, eta nik ere arma lurrera erortzen utzi nuen. Une horretan besoak inguratu zizkidan, nire atzetik urte mordoa zeramatzala esanez, etxera itzultzeko erregutuz. Besoak nire bizkarrean mugitu zituen, eta Alemanian zehar gure bila ibili zela esan zidan, biok hemen elkartu eta konbentzitzea lortuz gero, etxera itzultzeko.

–Lucas... ez dakit zer esan... maite ez ninduzuela uste nuen...

–Bai, zera! Gurasoek gangster talde batek bahitu eta hil zintuztela uste dute, ez baitzuten ezer esan gabe alde egingo zenuela uste... Tira, lagun ieza-dazu hemendik irteten.

Eskua eman zidan eta hanka bat autotik atera zuen. Une horretan praktetan badaezpada ezkatutako pistola hartu eta tiro egin nion saman.

Lasterka, autoan sartu eta plazarako bidea hartu nuen. Nire atzean, tiro hotsak aztoraturiko herritar batzuk agertu ziren, baina ihes egiteko denbora eman zidan. Plazako bazter batean Clifford jauna begiztatu nuen.

–Zer gertatzen da, Matt?

–Ez dugu denborarik, Jauna. Sar zaitez autoan, atzean duzu eskatutakoa. Ihes egin, azkar!

Eta ezer ulertu gabe, hala egin zuen. Ni nire autoan sartu eta etxera abiatu nintzen, kezkatutako jendea eta polizia plazaraino heldu baino lehen.

Gogoratzen dudan hurrengo gauza epaiketa da. Nire gurasoek Lucasen desagertzea salatzen zuten, eta Interlakeneko alkateak emandako lekukotasunarekin bat zetorrenez, susmagarrioi deklaratzeko deitu ziguten. Nik ezer esan gabe errugabetzat jo ninduten proba falta zela-eta, eta Clifford jaunaren autoan mapak –eta hildakoa– aurkitu zituztenez, bera atxilotu eta espetxeratu zuten. Biziarateko kartzela-zigorra. Eta hemen naiz ni, nire anaiaren hiletan, amaitu bezain pronto ihesari emateko eta hainbeste arazo sortarazi dizkidan herritik guztiz desagertzekotan.

Ezbairik gabe, bada odola baino gauza indartsuagorik bizitza bidegabe honetan.